



Alkatearen proposamena

Izaro Elorza Arregui andrea, Oñatiko Udaleko alkate-presidentea, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.

Gaia: Batzordeko eta kide anitzetako organoetarako kide berriak izendatzea.

I.- 2019ko ekainaren 27ko Oñatiko Osoko Bilkuran batzorde informatiboetako partaideak izendatu ziren:

“Zerbitzuak eta Landa garapena.

– Titularrak:

Bixente Urrutia Eluxpuru (EH Bildu).

Asier Iraeta Izagirre (EH Bildu).

Angel Biain Peña (EAJ-PNV).

Andoni Altuna Uribe (EAJ-PNV).

– Ordezkoak:

Izaro Elorza Arregi (EH Bildu).

Ainhoa Galdos Olazar (EAJ-PNV).

Ongizate Zerbitzuak.

– Titularrak:

Susana Altuna Ugarte (EH Bildu).

Anik Zubizarreta Arturo (EH Bildu).

Amaia Erostarbe Letamendi (EAJ-PNV).

– Ordezkoak:

Bixente Urrutia Elexpuru (EH Bildu).

Marijo Etxe goien Arzuaga (EAJ PNV).”

Akordio hori 2019ko uztailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (129. Zenbakia).

II.- 2019ko uztailaren 23ko Oñatiko Osoko Bilkuran kide anitzeko organoen partaideak izendatu ziren:

Hirigintzako Plan Orokorren Kontseilua(HAPO).

– Izaro Elorza Arregi (Alkatea).

– Bixente Urrutia Elexpuru (EH Bilduko zinegotzia).

– Asier Iraeta Izagirre (EH Bilduko zinegotzia).

– Angel Biain Peña (EAJ-PNVko zinegotzia).

– Andoni Altuna Uribe (EAJ-PNVko zinegotzia).

Ordezkoak:

– Xabier Igartua Loidi (EH Bilduko zinegotzia).

– Anik Zubizarreta Arturo (EH Bilduko zinegotzia).

– Maite Anton Leno (EH Bilduko zinegotzia).

– Ainhoa Galdos Olazar (EAJ-PNVko zinegotzia).

– Marijo Etxe goien Arzuaga (EAJ-PNVko zinegotzia).

Akordio hori 2019ko abuztuaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (147. Zenbakia).

III. Ikusita, Bixente Urrutia Elexpuru zinegotzi karguari uko egin diola eta horren ordez, EH BILDU taldeko zinegotzi berriak izendatu behar direla, EH Bilduko bozeramailearen idatziaren bidez.

IV.- Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 29 eta 38. artikuluek honako hau diote:

“Talde politikoei dagokie, lehendakariari zuzendutako bozeramailearen idazki baten bidez eta erregelamendu honetan kasu bakoitzean aurreikusitako baldintzetan, talde desberdinetako kideek osatutako korporazioko kide anitzeko organo guztietan ordezkatuko dituzten kideak izendatzea.”

-“ Eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, alkateak udalbatzaren osoko bilkura bereziko deia egingo du, hurrengo puntuak ebazteko:

C) Korporazioaren ordezkariak osoko bilkuraren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan izendatzea.”

Gainera, erregelamendu horrek, bere 82.3 artikuluan dio:

“Alkateak edo lehendakariak, behar bezala arrazoituta presazko arrazoiak direla medio, gai-zerrendan sartu ahal izango ditu, bere ekimenez edo bozeramaileetako batek proposatuta, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik informatu ez dituen gaiak, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko erabakirik hartu osoko bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi gabe.”

Gaia azterturik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Zerbitzuak eta Landa garapena batzordeko kide berria izendatzea, Xabier Igartua Loidi jauna, Bixente Urrutia Elexpururen ordezkari.

BIGARRENA.- Ongizate Zerbitzuak batzordeko ordezkari kide berria izendatzea, Izaro Elorza Arregui andrea, Bixente Urrutia Elexpururen ordezkari.

HIRUGARRENA.- Hirigintzako Plan Orokorraren Kontseilua (HAPO)-aren kide titular berria izendatzea, Xabier Igartua Loidi jauna, Bixente Urrutia Elexpururen ordezkari eta ordezkari kide bezala, Iñaki Olalde Altxelai jauna, Xabier Igartua Loidi jaunaren ordezkari.

LAUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

BOSTGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Oñatin, 2021ko azaroaren 18an.

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui andrea.